

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Portugaleteko Udalaren Kirol Sozietatea, S.A. (Demuporsa)****Kirol sustapenerako diru-laguntzen deialdia: D lerroa**

Portugaleteko Udalaren Kirol Saileko Administaritza Kontseiluak 2018ko irailaren 27ko bilkuran, kirol sustapenerako diru-laguntzen deialdia onetsi du, ondokoa xehaturik geratzen delarik:

- D lerroa: Portugaleteko unibertsitatez kanpoko ikastegietan eskolaz kanpoko kirol-jarduerak garatzeko kirol ekipamenduaren gastuak finantzatzeko urteko diru-laguntza 2018an emateko.

Diru-laguntza hauen emateak eta ematen duen pertsonaren eta onuradun entitatearen arteko harreman juridikoak oinarri-arau hauei jarraituko diete. Oinarri-arauotan ez datorrenari dagokionez, azaroaren 17ko 38/2003ko Diru-laguntzen Lege Orokorra bete da. Araudi hau Udalaren iragarki-taulan www.portugalete.org webgunean egongo da ikusgai.

Portugaleten, 2018ko irailaren 27an.—Demuporsako Presidentea, Iker Villalba Batalla

**D LERROA. PORTUGALETEKO UNIBERTSITATEZ KANPOKO IKASTEGIETAN ESKOLAZ KANPOKO KIROL-JARDUERAK GARATZEKO KIROL-EKIPAMENDUAREN GASTUAK FINANTZATZEKO 2018AN EMAN BEHARREKO URTEKO DIRU-LAGUNTZA****1. Xedea**

Arautegi honen helburua da arautzea ikasleen guraso elkarteei, helduen irakaskuntzako ikasleen elkarteei, Portugaleteko unibertsitatez kanpoko ikastegietako irakaskuntza kooperatibei edo unibertsitatez kanpoko ikastegiei emateko diru-laguntzen deialdia. Diru-laguntza hori gastuok ordaintzeko izango da:

- 2018. urtean eginiko gastuak kirol-ekipamendua erosteko eskolaz kanpoko kirol-jarduerak egiteko. Diru-laguntzak Portugaleteko unibertsitatez kanpoko ikastegietako ikasleen gurasoei eta ikasleei daude zuzenduta.

2. Diru-laguntzen zenbatekoa

Finantzazioa gehienez 18.323,17 euro eurokoa izango da eta 07.3400.43301 aurrekontu-kreditu baten kargura egingo da.

Eskaera aurkezten duen entitate bakoitzak gehienez 3.000 euro jasoko du.

Diru-laguntza hauek bateragarriak dira beste diru-laguntza mota batzuekin eta beste-lako diru-sarrera edo baliabideekin, entitate publikoek edo pribatuek emanda ere.

3. Onuradunak

Diru-laguntza hauen onuradunak hauexek izango dira: ikasleen guraso elkarteak, helduen irakaskuntzako ikasleen elkarteak, ikastegiak (zentroko IGEk diru-laguntzarik eskatzen ez badu) edo Portugaleteko unibertsitatez kanpoko ikastegietako irakaskuntza kooperatibak baldin eta legez eraturik badaude eta haien helburuak bat badatoz arau hauekin eta elkarte moduan inskribaturik badaude dagokien erregistroan, Euskal Autonomia Erkidegoko ikasleen gurasoen elkarteak arautzen dituen otsailaren 10eko 66/1987 Dekretuaren (1987ko apirilaren 7ko EHAA) 6. eta 11. artikuluetan ezartzen diren arabera.

Eskatzailea irakaskuntza kooperatiba bat bada, dagokion Euskadiko Kooperatiben erregistroan sartuta egon beharko du baita irakaskuntza kooperatiba gisa kalifikatuta ere. Eskatzaileak zentroko IGE izan beharrean, unibertsitatez kanpoko ikastegiak badira, dagokien Euskadiko ikastegien erregistroan egon beharko dute eta irakaskuntza zentro gisa kalifikatuta.

Onuradunek baldintzok ere bete beharko dituzte:

- Azaroaren 17ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorreko 13. artikuluko 2. eta 3. atalek aipatzen dituzten diru-laguntzak jasotzeko debekuetan sartuta ez egotea.
- Portugaleteko Udalak edota Demuporsak lehenago emandako diru-laguntzen zuri-keta egokia eta eguneratua izatea.

4. Gastu konputagarriak

Kirol-ekipamenduarenak izango dira, 2018. urtean erosi badira.

5. Eskaera-orriak nora aurkeztu

Interesdunek agiriok aurkeztu behar izango dituzte Demuporsaren bulegoetan (Pando Aisia kiroldegia, Miguel Unamuno kalea, 43) 9:00etatik 14:00etara, ereduie jarraiki:

- a) Eskaera, I. eranskina
- b) Zordunaren fitxa, behar bezala beteta, II. Eranskina
- c) Eskaera-orria izenpetzen duenak daukan ordezkatzeko-ahalmenaren egiaztatzea.
- d) Elkarteen erregistroan inskribaturik egoteko egiaztatzea, 3. artikuluko esan bezala.
- e) Ikastetxeko zuzendariaren agiria, 2018-2019 ikasturtean zenbat ikasle dauden ziurtatzeko
- f) Ikastetxeko zuzendariaren agiria, 2017-2018 ikasturtean zenbat ikasle zuten Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren beka ziurtatzeko.



- g) Ikastetxeko ordezkariak organo gorenaren idazkariaren agiria, ziurtatzeko organo horrek onetsi egin dituela 2018-2019 ikasturterako proposatutako eskolaz kanpoko kirol- jardueretan (III. Eranskina).
- h) 2018. urtean kirol-ekipamenduan eginiko edota egiteko dauden gastuen zerrenda, helburu ikastetxean eskolaz kanpoko kirol-jarduerak garatzea dutelarik, IV. Eranskinak esan bezala.
- i) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorren ziurtagiria, baldin eta eskatzaileak, indarreko araudiari jarraiki, Gizarte Segurantzarekin behartze-harremana baleuka. Horretaz gain, Bizkaiko Foru Ogasunarena ere aurkeztu beharrekoa da, zeinetan behar fiskalen berri emango baita deialdi honen argitalpenaren ondorengo datan. Ziurtagiriok ordezkariak daitezke 3.000 euro baino gutxiagoko eskariak egiten badira, erantzukizun-aitorpena eginda, V. Eranskinari jarraiki.
- j) Zinpeko aitortza, zeinetan adieraziko baitira, helburu bera izanik, erakunde publikoari zein pribatuari eskaturiko beste diru-laguntza batzuen zenbatekoak, VI. Eranskinari jarraiki.
- k) Aitortza, zeinetan adieraziko baita ez dagoela onuraduna izan ahal izateko debekuen artean, azaroaren 17ko 38/2003ko Diru-laguntzen Lege Orokorreko 13. artikuluko 2. eta 3. idazpuruak dioten bezala, VII. Eranskinari jarraiki.

Demuporsak, kasuak kasu, eskatzaileari beste edozein agiri osagarri ere eska liezaioke egoki baleritzo, aurkeztutako proiektuaren balorazio taxuzkoa egiteko xedez.

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrek (DBEO) dioena bete nahian, entitate eskatzaileei ohartarazi nahi diegu agirietan aurkeztzen diren datuak oinarri-arauon deialdiaren urteroko diru-laguntzaren emakidaren prozeduran soilik erabiliko direla.

Nolanahi ere, entitate eskatzaileek datuak eskuratu, zuzendu, kendu, horien kontra egin, tratamendua mugatzeko eta eramangarritasunerako eskubideak ere erabil ditzake eta, horretarako Demuporsaren Datuen Tratamenduaren Arduradunarengana joko du. Helbidea hau da: Miguel Unamuno, 43, Portugalete, 48920-Bizkaia.

6. Eskaerak egiteko epea

Eskabideak, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean deialdia argitaratu ondorengo 30 egutegi-eguneko epean aurkeztu behar izango dira.

7. Eskaeretakako akatsen zuzenketa

Eskabideak jasota, atal guztietan behar bezain ondo beteta ez baleude edo beharrezko agiriak ez balekartzate, Demuporsak pertsona fisikoari edo eskatzaile juridikoari eska liezaioke errekerimendu-idazkia, jasotzen duenetik 10 egun balioduneko epean, akatsa zuzentzeko edo nahitaezko agiriak ekartzeko. Egin ezean, eskaera ezetsi egingo da.

8. Baloratzeko irizpideak

- Onartutako eskabide guztiei irizpideok aplikatuko zaizkie, gehienez 100 puntu izaki.
 - Eskolaz kanpoko kirol-jardueren egitaraua, 2018/2019: 20 puntu.
 - Eskolaz kanpoko kirol-jardueretan jarraitutasunez izena eman dutenen kopurua: 35 puntu.
 - Emakumezko kirolaren sustapena: 5 puntu.
 - Ikastetxean 2017-2018 ikasturtean bekak jaso dituztenen kopurua, gizarteko onuragarriak diren zentroetako entitateei laguntze aldera: 30 puntu.
 - Herriko kirol-klubei instalazioak lagatzen dizkieten ikastegiak: 10 puntu.

9. Diru-laguntza emateko prozedura

Diru-laguntza emate hau hainbanako erregimenean egingo da.

Diru-laguntza lerroari esleituriko zenbateko guztia, ezarritako betekizunak betetzen dituzten entitate eskatzaileen artean banatuko da erdietsitako puntuazioaren arabera. Eskatzaile bakoitzak jasoko duen zenbatekoa, osotara puntuazioa puntu bakoitzari esleitutako balio ekonomikoaren puntuazioagatik biderkatzearen ondoriozkoa izango da.



Emandako diru-laguntzaren zenbatekoa ezin izango da jarduerako aurrekontuetako gastu konputagarriak baino handiagoa izan.

Nolanahi ere, emakidaren ebazpenean kreditu egokia eta nahikoa egoteak diru-laguntza emate hori baldintzatu ahal du.

Behin diru-laguntza lerro honen ebazpen-aldia amaituta eta diru-laguntzak emanda, eman beharreko gehienezko zenbatekoa agortu ez bada, eman gabeko zenbateko hori aplikatu dakieke beste diru-laguntza batzuen ondorengo ebazpenei.

10. Ebazpena

Eskabideak Demuporsako Administrazio Kontseiluko ebatziko ditu.

Kide anitzeko organo batek, instrukzioko organo baten bitartez, presidenteari diru-laguntzarako proposamena luzatuko dio. Sozietateko zerbitzu teknikoek instrukzioko organo osatuko dute. Kirol zinegotziak, zuzendari kudeatzaileak eta Demuporsaren klub eta ekitaldien arduradunak ordea, kide anitzeko organo osatuko dute.

Ebazpena eskaera-orriak aurkezteko epea amaitzen denetik, gehienez, hiru hilabete epean, ebatziko da. Epea amaituta eta berariaz ebazpenik ez dutela jakinarazita, eskaera ezetsi dela ulertuko da.

Emandako diru-laguntzak, onuradunak eta zenbatekoak Udalaren webgunean, Portugaleteko Udaletxeko iragarki-taulan eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean egongo dira ikusgai.

Ebazpenak bide administratiboa amaituko du eta beraren aurka, administrazioarekiko auzien epaitegian jakinarazpenaren dataren hurrengo egunetik bi hilabete epean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke. Hala eta guztiz ere, administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa egin ahal izango da, ebazpena eman zuen erakunde berberaren aurrean. Emakida, hots, deialdi honetan araututako diru-laguntzetarako onuradunak ordaindu beharrekoa, baldintzaturik dago Udalak edota Demuporsak emandako diru-laguntzen esparruan edozein diru-ateratze edo zigor-prozedura amaitzeke badago.

11. Argitalpena

Prozeduraren izapideen argitalpena eta emakidaren ebazpena Portugaleteko udal txeko iragarki-taulan eta www.portugalete.org Udalaren webgunean egongo dira ikusgai, organo eskudunak onesten duen egunetik aurrera.

Azaroaren 26ko Herri-administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio-prozedura Erkidearen Legeko 59.6 artikulua dioenari jarraiki, aipatutako argitaratzeko erak jakinarazpenen ordezkotzat dira ondorio guztietarako.

12. Diru-laguntza ordaintzea

Emandako diru-laguntzaren abonua ordaintzea bakarrean egingo da, finantzatzeko zenbatekoari buruzko jakinarazpenaren ostean.

Diru-laguntza hau bateragarri da, helburu bera dutelarik, beste erakunde publiko edo pribatu batzuek emandako beste batzuekin batera, baldin eta gainfinantzaketarik ez badago. Hori dela eta, diru-laguntzaren zenbatekoak beste erakunde batzuetakoarekin bat eginda, diruz lagundutakoaren kostu osoa ezin du gainditu.

Diru-laguntzak batera agertzeagatik gainfinantzaketarik balego, onuradunak beste erakunde publiko zein pribatu batzuek beste diru-laguntza batzuk emanda, horrelako gainfinantzaketa gertatuz gero, onuradunak itzuli egin beharko du Demuporsak emandako zenbatekoa, finantzatzeko guztia eta Demuporsak emandakoa kontuan hartuta.

13. Entitate onuradunaren beharrak

Oinarri-arau hauetako diru-laguntza jasotzen duen erakunde onuradunak behar hauexek bete behar izango ditu:

- Emandako diru-laguntza onartu. Jakinarazpenaz geroztik 15 eguneko epean onuradunak berariaz eta idatziz diru-laguntzari uko egiten ez badiote, onartutzat joko da.



- Jasotako diru-laguntzako helburuak eskatutakoaren helburu bera izan behar du.
- Jakinarazi, helburu berbererako beste diru-laguntzaren bat erakunde publiko-
tik zein pribatutik lortuz gero. Izan ere, jasotako zenbatekoaren berri zehatza
jakinarazi behar izango da.
- Demuporsari lagundu, hala eskatuz gero, ikerketak, inkestak edo estatistikak
egiten.
- Demuporsak egiten dituen ziurtatze-ekintzak ametitu.
- Jasotako diru-laguntza zertan erabili den justifikatu, hurrengo atalak zehaztu
bezala.

14. Diru-laguntzaren justifikazioa

Diru-laguntza justifikatzeko agiriok aurkeztu behar izango dira:

- Eskolaz kanpoko kirol-jarduerak egiteko 2018. urtean kirol-ekipamenduan egini-
ko gastuen jatorrizko fakturen zerrenda. Agiriok justifikatzeko modukoak izan dai-
tezen, diru-laguntza ematen den epealdiaren barruan izan behar dute data, VIII.
eranskinari jarraiki.

Justifikazioa aurkezteko azken eguna 2019ko urtarrilaren 30a izango da.

Entitate onuradunak aurkezten dituen agiri jatorrizkoak behar baditu, fotokopiekin ba-
tera aurkeztuko ditu eta fotokopiak erkatu egingo dira.

Behin agiriak jasota, agiriok guztiz betetik ez badaude edo beharrezko dokumentue-
kin batera ez badatoz, Demuporsak pertsona fisiko zein juridiko eskatzaileari eskatuko
dio, errekerimendua jaso ondoko hamar egun baliodunetan, huts egindakoa zuzentzea
edo falta diren agiriak ekartzea. Halaber jakinaraziko dio, horrela egin ezean, ulertuko
dela etsi egin diola diru-laguntzari.

15. Diru-laguntza itzultzea

Jasotzaileak itzuli egin beharko dio diru-laguntza Demuporsari, ondoko hauetakoren
bat gertatzen bada:

- Jasotako diru-kopurua eskatutakoa ez den beste xede batean erabiltzea.
- Egotzitako arrazoiak egonda, onuradunak ez betetzea oinarri-arauok dakartzaten
betebeharrak.
- Gainfinantzaketa, jasotako diru-laguntzaren kopurua jarduerak benetan sortu di-
tuen gastuekin konparatuta. Horrelako gainfinantzaketa gertatuz gero, soberakina
itzuli beharko da.
- Gainfinantzaketa, beste erakunde publiko zein pribatu batzuek beste diru-laguntza
batzuk emanda. Horrelako gainfinantzaketa gertatuz gero, onuradunak itzuli egin
beharko du Demuporsak emandako zenbatekoa, finantzatutako guztia eta Demu-
porsak emandakoa kontuan hartuta.
- Justifikatu beharra aurreko klausulak ezarri bezala ez betetzea. Aurkeztutako au-
rrekotuko gastu konputagarri guztien justifikazio osoa egin ezean, justifikatu ga-
beko gastuari dagokion zenbatekoa itzuli beharko dio Demuporsari.

Itzuli beharreko diru-zenbatekoa, guztizkoa zein partziala, heinekotasun eta ekitate
irizpideak erabilita zehaztuko da.

Diru-laguntza eman zuen organoak berak emango du diru-itzulketa eskatzeko ebaz-
pena.

16. Zigorren jaurpidea

Arau-hausteak eta zigorrak azaroaren 17ko 38/2003ko Diru-laguntzen Lege Oroko-
reko IV. tituluak dakartza.



Ayuntamiento de ¹
PORTUGALETEko Udala
Área de Deportes
Kirol Saila

I. ERANSKINA / ANEXO I ESKAERA / SOLICITUD

Entitatearen datuak / Datos de la entidad

Izena / Nombre	
Ikastetxea / Centro	
Presidentea / Presidente	
Egoitza / Domicilio	
Erregistroko inskripzio zenbakia Número de inscripción en el Registro	
Inskripzio eguna / Fecha de inscripción	

Aipatutako entitatearen presidenteak, Zuzendaritza Batzordeak erabakitakoa bete nahian eta Portugaleteko Udalaren Kirol Sozietateak ikasleen gurasoen elkarteak eta beste hainbat diruz laguntzeko egin duen deialdiarekin bat etorri, hauxe

El Presidente o la Presidenta de la citada entidad, cumpliendo lo acordado en la Junta Directiva de esta asociación y de conformidad con la convocatoria de ayudas a asociaciones de padres y madres de alumnos/as y otros, realizada por la Deportiva Municipal de Portugalete.

ESKATZEN DU :

Diru-laguntza eman dakiola aipatutako entitateari, proiektatu dituen xedeei laguntzearen; hori dela eta, honako agiriak dakartza:

- b) Zordunaren fitxa behar bezala beteta. II. Eranskina.
- c) Eskaera-orria izenpetzen duenak daukan ordezkatzehalmenaren egiaztagiria.
- d) Elkartearen erregistroan inskribaturik egoteko egiaztagiria, 3. artikulua esan bezala.
- e) Ikastetxeko zuzendariaren agiria, 2018-2019 ikasturtean zenbat ikasle dauden ziurtatzeko (2018ko urriaren 10).
- f) Ikastetxeko zuzendariaren agiria, 2017-2018 ikasturtean zenbat ikasle zuten Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren beka ziurtatzeko.
- g) Ikastetxeko ordezkaritza organo gorengo idazkariaren agiria, ziurtatzeko organo horrek onetsi egin dituela 2018-2019 ikasturterako proposatutako eskolaz kanpoko kirol jarduerak (III. Eranskina).
- h) 2018. urtean kirol-ekipamenduan eginiko edota egiteko dauden gastuen zerrenda, helburu ikastetxean eskolaz kanpoko kirol-jarduerak garatzea dutelarik, IV. Eranskinak esan bezala.

SOLICITA :

Que le sea concedida a la citada asociación dicha ayuda, a fin de contribuir al logro de los fines que se proyectan, por lo que se adjunta la siguiente documentación:

- b) Ficha del acreedor debidamente cumplimentada. Anexo II.
- c) Documento acreditativo de la representación en virtud de la cual actúa el/la firmante de la solicitud.
- d) Documento acreditativo de la inscripción en el Registro de Asociaciones a que se refiere el artículo 3.
- e) Certificado del/la director/a del centro del número total de alumnos/as del centro durante el curso 2018-2019 (10 de octubre de 2018).
- f) Certificado del/la director/a del centro del número total de alumnos/as con beca del Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco en el curso 2017-2018.
- g) Certificado del/la Secretario/a del Órgano Máximo de Representación del centro de la aprobación por tal OMR de las actividades extraescolares deportivas propuestas para el curso 2018-2019 (Anexo III).
- h) Relación de gastos realizados y/o previstos en 2018 en equipamiento deportivo para el desarrollo de actividades extraescolares deportivas en el centro, siguiendo el modelo del Anexo IV.

Deportiva Municipal de Portugalete, S.A.
CIF: A-48068134
c Miguel de Unamuno, 43 . 48920 . Portugalete
t 944 612 600
f 944 612 711
e demuporsa@demuporsa.com





Ayuntamiento de ²
PORTUGALETEko Udala
Área de Deportes
Kirol Saila

- i) Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren ziuertagiria. Horretaz gain, Bizkaiko Foru Ogasunarena ere aurkeztu beharrekoa da, zeinetan behar fiskalen berri emango baita deialdi honen argitalpenaren ondorengo datan. Ziuertagiriok ordezkia daitezke 3.000 euro baino gutxiagoko eskaerak egiten badira, erantzukizun-aitorpena eginda, V. eranskinari jarraiki.
- j) Zinpeko aitortpena, zeinetan adieraziko baitira, helburu bera izanik, erakunde publikoei zein pribatuei eskaturiko beste diru-laguntza batzuen zenbatekoak, VI. Eranskinari jarraiki.
- k) Aitortpena, zeinetan adieraziko baita ez dagoela onuraduna izan ahal izateko debekuen artean, azaroaren 17ko 38/2003ko Diru-laguntzen Lege Orokorreko 13. artikuluko 2. eta 3. idazpuruak dioten bezala. VII. Eranskina.
- i) Certificado de la Tesorería General de la Seguridad Social, y de la Hacienda Foral de Bizkaia, de estar al corriente de las obligaciones fiscales, con fecha posterior a la publicación de la presente convocatoria. Estos certificados podrán ser sustituidos, en el caso de solicitudes de menos de 3.000 euros, por una declaración responsable, según el Anexo V.
- j) Declaración jurada en la que se manifiesten los importes de cualesquiera otras ayudas solicitadas para la misma finalidad tanto a instituciones públicas como privadas, según el Anexo VI.
- k) Declaración de no estar incursas en las prohibiciones para obtener la condición de beneficiario señaladas en los apartados 2 y 3 del artículo 13 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, según el Anexo VII.

Portugalete,

(izenpea eta zigilua / firma y sello)

Deportiva Municipal de Portugalete, S.A.
CIF: A-48068134
c Miguel de Unamuno, 43 . 48920 . Portugalete
t 944 612 600
f 944 612 711
e demuporsa@demuporsa.com





Ayuntamiento de **PORTUGALETE**ko Udala
Área de Deportes
Kirol Saila

II. ERANSKINA / ANEXO II

Ezagupenerako datuak / Datos identificativos del tercero

IFK / NIF:
Sozietataren izena / Razón Social:

Helbidea / Domicilio:

P.K. / CP: Herria / Población:

Ibideratzeak / Domiciliaciones bancarias

IBAN:
Erakundea / Entidad
Sukurtsala / Sucursal:
KD / DC:
Kontu zenbakia / Número de cuenta:

Portugalete,

2016ko apirilaren 2ko DBEOK dioenarekin bat etorrira, jakinarazten dizuegu Portugaleteko Udalaren Kirol Sozietateak zuen datu pertsonalak bildu eta haien tratamendua egiten duela, isilpekotasuna bermatzen duten neurri tekniko eta antolamenduzkoak aplikatzen dituelarik. Alta, helburu dute diru-laguntzaren emakidaren prozedura eta Kirol Saileko beste jarduera batzuk kudeatzea. Zuk oniritzia baita baimena ere ematen duzu datuen tratamendu horretarako. Izan ere, zure datu pertsonalak gure harremana kudeatzeko denbora beharrezkoan soilik erabiliko ditugu. Nolanahi ere, entitate eskatzaileek datuok eskuratu, zuzendu, kendu, horien kontra egin, tratamendua mugatzeko eta eramangarritasunerako eskubideak ere erabil ditzake eta, horretarako Demuporsaren Datuen Tratamenduaren Arduradunarengana joko du. Helbidea hauxe da: Miguel Unamuno, 43, Portugalete, 48920-Bizkaia.

Le informamos conforme a lo previsto en el RGPD de 27 de abril de 2016 que Deportiva Municipal de Portugalete, S.A., recaba y trata sus datos de carácter personal, aplicando las medidas técnicas y organizativas que garantizan su confidencialidad, con la finalidad de gestionar el procedimiento de concesión de subvención y otras actividades del Área de Deportes. Usted da su consentimiento y autorización para dicho tratamiento. Conservaremos sus datos de carácter personal únicamente el tiempo imprescindible para gestionar nuestra relación. Podrá ejercitar los derechos de acceso, rectificación, supresión, limitación, portabilidad y oposición dirigiéndose a Deportiva Municipal de Portugalete, S.A., con dirección Miguel Unamuno, 43, Portugalete, 48920-Bizkaia.

Deportiva Municipal de Portugalete, S.A.
CIF: A-48068134
c Miguel de Unamuno, 43 . 48920 . Portugalete
t 944 612 600
f 944 612 711
e demuporsa@demuporsa.com





Ayuntamiento de **PORTUGALETE**ko Udala
Área de Deportes
Kirol Saila

III. ERANSKINA / ANEXO III

Ikastetxea / Centro.....

OOGko idazkaria / Secretario/a del OMR

Arestian aipatutakoak, ikastetxe horretako idazkaria den aldetik, egiaztatzen du OOGk oniritzia eman diela egiaztagirri honekin batera datozen 2018-2019 ikasturterako eskolaz kanpoko kirol-jarduera guztiei.

La persona arriba citada, como secretario/a del centro expresado, certifica que el OMR ha aprobado las actividades extraescolares deportivas previstas para el curso 2018-2019, cuya relación se adjunta a este certificado.

Modalitatea Modalidad	Adina Edad	Neska kopurua Número de chicas	Mutil kopurua Número de chicos	Jarduera egiten den hizkuntza Idioma en que se imparte

Portugalete,

O.I. / V.º B.º PRESIDENTE/A*

IDAZKARIA / SECRETARIO/A

(jatorrizko izenpea / firma original)

(jatorrizko izenpea eta zigilua / firma y sello originales)

* Ikastetxeetan presidenteak sinatu orde zuzendariak egin beharko du.

* En el caso de los centros escolares firmará el Director del centro en lugar del Presidente.

Deportiva Municipal de Portugalete, S.A.
CIF: A-48068134
c Miguel de Unamuno, 43 . 48920 . Portugalete
t 944 612 600
f 944 612 711
e demuporsa@demuporsa.com





Ayuntamiento de **PORTUGALETE** Udala
Área de Deportes
Kirol Saila

IV. ERANSKINA / ANEXO IV

2018. urtean kirol-ekipamenduan eginiko edo egiteko dauden gastuen zerrenda
Relación de gastos realizados o previstos en 2018 en equipamiento deportivo

Eskatutako zenbatekoa / Cantidad solicitada

Kontzeptua Concepto	Data Fecha	Zenbatekoa Importe
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....

GUZTIRA / TOTAL €

Portugalete,

O.I. / V.º B.º PRESIDENTE/A

IDAZKARIA / SECRETARIO/A

(jatorrizko izenpea / firma original)

(jatorrizko izenpea eta zigilua / firma y sello originales)

* Ikastetxeetan presidenteak sinatu ordez zuzendariak egin beharko du.

* En el caso de los centros escolares firmará el director del centro en lugar del Presidente.

Deportiva Municipal de Portugalete, S.A.
CIF: A-48068134
c Miguel de Unamuno, 43 . 48920 . Portugalete
t 944 612 600
f 944 612 711
e demuporsa@demuporsa.com





Ayuntamiento de ⁶ PORTUGALETEko Udala
Área de Deportes
Kirol Saila

V. ERANSKINA / ANEXO V
ZINPEKO AITORPENA / DECLARACIÓN JURADA

Ikastetxea / Centro.....

OOGko idazkaria / Secretario/a del OMR

AITORTZEN DUT:

- Ordezkatzen dudan entitateak Gizarte Segurantzarekin edota Foru Aldundiko Ogasun Sailarekin edo Estatukoarekin betebeharririk ez duela.
- Ordezkatzen dudan entitatea Gizarte Segurantzarekin eta Ogasun Publikoarekin dituen betebeharren jakitun dela.

Eta hala jasota gera dadin eta dagozkion ondoriak sor ditzan egin eta izenpetzen dut aitorten hau.

DECLARO QUE:

- La entidad a la que represento carece de obligaciones con la Seguridad Social o con la Hacienda Pública Foral o Estatal.
- La entidad a la que represento se halla al corriente de sus obligaciones con la Seguridad Social y con la Hacienda Pública.

Y para que así conste y surta los efectos oportunos, expide y firma la presente en:

Portugalete,

O.I. / V.º B.º PRESIDENTE/A

IDAZKARIA / SECRETARIO/A

(jatorrizko izenpea / firma original)

(jatorrizko izenpea eta zigilua / firma y sello originales)

* Ikastetxeetan presidenteak sinatu ordezkariak egin beharko du.

* En el caso de los centros escolares firmará el director del centro en lugar del Presidente.





Ayuntamiento de ⁷
PORTUGALETEko Udala
Área de Deportes
Kirol Saila

VI. ERANSKINA / ANEXO VI ZINPEKO AITORPENA / DECLARACIÓN JURADA

Ikastetxea / Centro.....

OOGko idazkaria / Secretario/a del OMR

Aitortzen dut diru-laguntza deialdi honetako programetarako (markatu aukera egokia):

Declaro que para los programas presentados a esta convocatoria de subvenciones (marcar la opción procedente):

- Ez duela gaurko dataz, helburu berbererako, beste entitate publiko edo pribatu batzuei bestelako diru-laguntzarik eskatu ezta hori egiteko asmorik ere.
- Helburu berbererako beste diru-laguntza batzuk eskatu dizkiela edota hori egiteko asmorik baduela ondoren zehazten diren entitateei, zenbatekoak ere horiek direlarik.

- No ha solicitado hasta la fecha, ni tiene previsto hacerlo, ninguna otra subvención ni ayuda para el mismo fin a otras entidades públicas o privadas.
- Ha solicitado, o tiene previsto hacerlo, otras subvenciones o ayudas para el mismo fin a las entidades y por los importes que a continuación se detallan:

Entitatea Entidad	Izapideen unea Estado *	Eskatutako zenbatekoa Importe solicitado	Jasotako zenbatekoa Importe recibido

* Izapideen unea zein den esan / Indicar el estado de la tramitación.

- (1) Eskatu behar/ A solicitar.
- (2) Ebazpenaren zain/ Pendiente de resolución.
- (3) Emanda / Concedida.

Eta hala jasota gera dadin eta dagozkion ondoriak sor ditzan egin eta izenpetzen dut aitorten hau:

Y para que así conste y surta los efectos oportunos, expide y firma la presente en:

Portugalete,

O.I. / V.º B.º PRESIDENTE/A

IDAZKARIA / SECRETARIO/A

(jatorrizko izenpea / firma original)

(jatorrizko izenpea eta zigilua / firma y sello originales)

* Ikastetxeetan presidenteak sinatu ordez zuzendariak egin beharko du.

* En el caso de los centros escolares firmará el director del centro en lugar del Presidente.

Deportiva Municipal de Portugalete, S.A.
CIF: A-48068134
c Miguel de Unamuno, 43 . 48920 . Portugalete
t 944 612 600
f 944 612 711
e demuporsa@demuporsa.com





Ayuntamiento de
PORTUGALETEko Udala
Área de Deportes
Kirol Saila

VII. ERANSKINA / ANEXO VII
ZINPEKO AITORPENA / DECLARACIÓN JURADA

Ikastetxea / Centro.....

OOGko idazkaria / Secretario/a del OMR

Aitortzen dut ordezkatzeko dudako entitatea ez dagoela azaroaren 17ko Diru-laguntzen Lege Orokorreko 13. artikuluko 2. eta 3. idazpurrek dioten bezala, diru-laguntzen deialdian onuraduna izatea debekatzen duten inguruabarretan sartuta.

Declaro que la entidad a la que represento no está incurso en ninguna de las circunstancias que impiden obtener la condición de beneficiario de la convocatoria de subvenciones previstas en el artículo 13 (apartados 2 y 3) de la Ley 38/ 2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

Eta hala jasota gera dadin eta dagozkion ondoriak sor ditzan egin eta izenpetzen dut aitortpen hau:

Y para que así conste y surta los efectos oportunos, expide y firma la presente en:

Portugalete,

O.I. / V.º B.º PRESIDENTE/A

IDAZKARIA / SECRETARIO/A

(jatorrizko izenpea / firma original)

(jatorrizko izenpea eta zigilua / firma y sello originales)

* Ikastetxeetan presidentek sinatu ordez zuzendariak egin beharko du.

*En el caso de los centros escolares firmará el director del centro en lugar del Presidente.

